

**“Etorkizuneko
Mutriku amestu
behar dugu,
mutrikuarrengan
ilusioa berpiztuko
duten proiektuekin”**

“Mutrikuarren
ongizatea eta bizi
kalitatea hobetzeko
lan egingo dugu”

Jose Angel Lizardi

Mutrikuko alkatetzarako
EAJ-PNVko hautagaia





bestelako gipuzkoa



“Etorkizuneko Mutriku amestu behar dugu,
mutrikuarren ilusioa berpiztuko duten
proiektuekin”

01 Jose Angel Lizardi

Mutrikuar herrikide agurgarria:

Azken legealdia, ez nahaspilarik gabe, agortu zaigu eta, konturatzerako, berriro ere, gainean dugu udaletxean gure herriko ordezkari berriak hautatzeko garaia. Gauzak horrela, zuregana zuzentzen naiz Eusko Alderdi Jeltzalearen alkatetzarako hautagai naizen aldetik, Mutrikuren hobekuntzaren alde nirekin orpoz orpo lan egingo duen taldea eta prestatua dugun herri programa zuri aurkezteko.

EAJren ordezkariok, lehendik ere, udaleko eta gizarteko hainbat arlotan urteetan lanean zaildutako pertsonok osatzen dugu. Gaur, ardurak hartzeari ihes egiten zaion garaian, beren denbora eta ezagutza gure herritarren alde gogotsu emateko prest dauden mutrikuar talde osatzeko gai izan gara.

Asmoei dagokienez, berriz, hilabete luzez buru belarri eta ilusio handiz herri programa egoki bat prestatzeari emanak egon gara. Gizarte aldaketen aurrean, irekitasunez ere jokatu nahi izan dugu eta, geureaz gain, teknologia berriek eskaintzen dizkiguten erraztasunez baliatu nahi izan dugu herritarren, zeuon, ekarpen, iritzi nahiz iradokizunak biltzeko, hitz batean, zuengandik hurre egoteko. Eta esan beharra dugu ez diguzuela hutsik egin. Eskerrak, beraz, guztioi!

Esan nahi dizut, azkenik, arinkeriatik ihesi, prestatu dugun herri programa sendo eta partehartzailean sinisten dugularik, geure onena emango dugula berori burutzeko, jakinik gainera, ordezkatzeko dugun alderdiaren babes eta indarra beti ondoan izango ditugula.

Horrela, bada, gure apustu irmoa indartzen joan dadin zuk ere bultzatzea egin dezazun, zure botoa eskatzera natorkizu, denon artean Mutriku biziago, irekiago eta anitzagoa egiteko bidean jar dezagun.

Adeitasunez.

Jose Angel Lizardi Agirregomezkorta

Gure Hautagaitza



“Enpresa eta merkatariekin harremanak indartu eta elkarlanean aritu behar dugu”

02. Nekane Illarramendi



“Hirigintza atsegina bultzatu behar dugu, mugikortasun arazoak dituztenentzat irisgarritasuna hobetuz kale zein eraikin publikoetan”

03. Josebe Astigarraga



“Gizarte zerbitzu egokiak bermatu behar ditugu behar gehien dituztenak alde batera ez uzteko”

04. Miren Lore Illarramendi



“Turismo arloari merezi duen garrantzia eman behar diogu. Horrez gain, hondartza inguruak bukatu eta zerbitzu egokiez hornitu behar da”

05. Ion Gamba



“Kultur baliabideak berrantolatu eta kultur agenda indartzea ezinbestekoa dira. Euskara eremu guztietara zabaltzen jarraitu behar dugu”

06. Elena Cebrian



“Kale eta eraikin publikoetan energia eraginkortasunerako neurriak ezartzea etorkizuneko apustua da”

07. Xabier Eizagirre



“Baserritarrei zor diegu ingurumenaren zaintza. Nekazaritza eta baso-ustiapen esplotazioen beharrak aintzat hartu behar dira”

08. Josu Pagoaga



“Herria garbi eta txukun mantentzea berebizikoa da. Berdeguneak eta haur parkeak hobetu beharra dago”

09. Esther Urresti



“Mutrikuarrok edukiontzien bidezko zabor bilteta sistema aukeratu dugu. Orain denok inplikatu behar gara sistemak arrakasta izan dezan”

10. Felix Azpiazu

11. Aitor Agirretxea

14. Lourdes Arrasate

12. Juan Miguel Lizardi

15. Gaizka Egurbide

13. Miren Beristain

16. Xabier Basterretxea



bestelako gipuzkoa

GARAPENA



- Ekintzailetasuna Debegesarekin batera bultzatzen jarraitu (ikastaroak, enpresa haztegia...)
- Mutrikuk Merkataritza arloan dituen gabeziak ikusi eta beharrezko lituzkeen zerbitzuen mapa egin.
- Herrian ditugun enpresengana hurbildu, dituzten behar eta gabeziak ezagutu eta elkarlanean aritzeko.
- Ekintzaileentzat coworking gunea sortu

GOBERNAZIOA



- Herria garbi eta txukun izateko plan orokorra egituratu.
- Lorategi eta berdeguneen mantenuerako urteko plana egin.
- Haurren parkeak jolas berriez hornitu eta beharko balira, auzoetan berriak sortu.
- Udalaren Komunikazioa indartu, herritarrekin harremanak sendotu eta partaidetza bultzatzeko asmoz.
- Kale eta eraikin publikoetan energia eraginkortasunerako neurriak abian jarri.
- Hilerrian hildakoen errautsak gordetzeko gunea sortu eta hilerraren birmoldaketarekin jarraitu.
- Birziklapena bultzatzeko sentsibilizazio kanpaina sendoa bultzatu.
- Mankomunitatearekin batera martxan jarri beharreko zabor bilketa sistema berria abian jarri.

Gure Proiektuak

TURISMOA

- Turismoa bultzatzeko, sektoreko enpreekin harremanak sakondu, batzorde iraunkorra sortuz.
- Debegesa eta eskualdeko beste herriekin elkarlana sendotu.
- Internet, sare sozial, prentsan...etan Mutrikuren presentzia handitu, kultura, kirol, nahiz gastronomia eskaintzak bultzatuz.
- Bisita gidatuen eskaintza sendotu.
- Kirol portuaren inguruan turismo informazio puntu bat sortu.
- Alkoleako surf gunea konpondu.
- Geoparkearen baitan herriko ondare historiko zein naturala interpretatzeko guneak egokitu (begiralekuak, karobiak, ibilbide mitologikoa...)



KULTURA

- Kultur agenda biziberritu, bai udarako emanaldiak eta baita urte osoko programazioa ere.
- Liburutegia biziberritu, helduen nahiz haurren egitasmoa era bateratuan aztertuta.
- Herriko historia jardunaldiak berreskuratu. Honi lotuta, herriko historia ikertzeko eta indusketa arkeologikoak egiteko laguntza eta bekak jarri.
- Herriko argazki, bideo eta audio artxibo digitala sortu.
- Udalak abian jarritako literatura lehiaketari benetako bultzada eman.
- Gure herriko ahozko ondarea bildu eta hedatzen jarraitu.
- Malen jaietan adin guztietako herritarrentzako ekintzak bermatu (haurrentzat, helduentzat...)
- Herriko interpretazio zentroaren proiektua bultzatu.





bestelako gipuzkoa

EUSKARA

#euskara
#euskara
#denonahotan
#denonahotan

- Euskararen erabilera eremu guztietara zabaldu eta indartu.
- Ordenagailu eta telefono mugikorretan euskarazko bertsioen erabilera sustatzearekin batera, dauden euskarazko zerbitzuen berri eman: Euskalbar, euskarazko Windows bertsioa, Facebook...
- Mutrikuko hizkeraren aditz taulak gaurkotu eta hika hizkeraren formak berreskuratu eta herritarren artean ezagutzera eman.
- Etorकिनen artean euskara bultzatzeko bitartekoak jarri.

KIROLA



- Moilan ur kirolentzako eraikin berri baten beharra aztertu, arrauna, piraguak, bela...
- Zesta punta, arrauna eta herri kirolei lehentasuna eman, bertako kirolak izanik indar berezia behar dutelako bizirik mantentzeko.
- Kirol instalakuntzetan konponketak eta mantenu egokia egin (kiroldegia, frontoia...)

LEHEN SEKTOREA



- Baserrietako bideak konpontzeko urteroko plangintza egin.
- Ur sareak berritzeko ekimenei gertuko jarraipena egin eta aukera badago baserritarren eta ur partzuergoaren arteko bitartekaritza lanak egin.
- Nekazaritza eta baso ustiapen esplotazioen beharrak aintzat hartu.
- Herriko produktuak kontsumitzeko kanpaina abian jarri
- Mubae eta Debemenekin harremanak sendotu

Gure Proiektuak

HIRIGINTZA

- Aparkaleku berriak sortzeko ahalegina egin aparkatzeko zailtasunak dauden eremuetan.
- Alde zaharreko harlauzazko kaleetan, hegaletan plaketak jarri irisgarritasuna hobetzeko.
- Zabiell Kultur Etxearen sarrerarako irisgarritasun plana burutu.
- Herriko eremu ezberdinak elkartzeko igogailu berrien proiektuak egin (Jose M^a Alzibar-Musika Eskola...)
- Saturrararen gauzatu beharreko proiektua erabakitzeko parte hartze prozedura abian jarri.
- Ondartza ingurua eta dikea bukatu eta txukuntzeko beharrezko gestioak egin.
- Mollaberri inguruko txabolak berreskuratzeko aukera ikusi, erabilera berriak aztertuz eta xarma haundiko gunea bihurtuz.
- Udarako zerbitzuak hobetzeko herritarren iritziak jaso.
- Mutriku-Sasiola errepidearen proiektu errealista landu.



ONGIZATE

- Mikel Deuna egoitzaren behealdean eguneko zentroa egokitzeko gestioak egin Aldundiarekin.
- Etorkinen bertakotze egitasmoan sakondu, beraien beharrianak aztertu eta ahal bada ordezkariak sortu.
- Mutrikuko ongizate arloko elkarteekin harremanak indartu eta elkarrekin gauzatu daitezkeen egitasmoak indarrean jarri.
- Hirugarren mundurako laguntza politika indartu.
- Bazterketa arriskuan dauden herriko familiei laguntza eta aholkularitza eskaini.
- Hirugarren adinekoentzat babespeko etxebizitza beharra aztertu.





MUTRIKU
HAZI
ARAZI



HACER
CRECER
MUTRIKU

bestelako
gipuzkoa

MUTRIKU EKINEZ EGINA



EMAN BOTOA

